

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

NEKAZARITZA SAILA

Onura publikoko mendiak mugatu eta mugarrizatzeko espedientea jendaurrean jartzea. Iragarri honen bidez, "Astepe", "Orzales" eta "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko mendiak mugatu eta mugarrizatzeko espedientea jendaurrean jarri eta erreklamazioak aurkezteko epea abiarazten da (61, 64 eta 67 zenbakiko onura publikoko mendiak, hurrenez hurren; Amurrioko udalerrian daude, eta Larrinbeko herriaren jabetzakoak dira), Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan eta Mendien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera

Amurrioko udalerrian dauden eta Larrinbeko herriarenak diren "Astepe", "Orzales" eta "Ejido de Larrinbe" izeneko onura publikoko 61, 64 eta 67 mendien neurketa lanak eta behin-behineko mugarrizteak amaituta, eranskinean agertzen diren mugen arabera, eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak (Mendien Foru Araua) eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuak onetsitako Mendien Arautegiak 120. eta 121. artikuluetan aurreikusitako eran, jakinarazten da ikusgai jarriko dela mugatzearen eta mugarriztearen espedientea Larrinbeko Administrazio Batzarraren bulegoetan (Larrinbe, 01450-Larrinbe), interesa duen orok aztertu ahal izan dezan, iragarri hau argitaratu eta hurrengo hamabost egun balioduneko epean.

Era berean, iragarri hau argitaratu ondorengo hogeita hamar egunetan, onartu egingo dira zuzenbidearen arabekoak diren erreklamazioak; Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkez daitezke (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz) edo Amurrioko udaletxean.

Mugatze lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugarriztatze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioei dagokienez, ohartarazten da erreklamazioan berariaz aipatu behar dela administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten direla, alde zuzeneko izapide gisa, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

“Astepe” izeneko onura publikoko 61 mendiaren mugak

Iparraldean: Amurrioko eta Orozkoko mendi pribatuak.

Ekialdean: Amurrioko mendi pribatuak.

Hegoaldean: onura publikoko 1 mendia.

Mendebaldean: Amurrioko mendi pribatuak.

“Ejido de Larrinbe” izeneko onura publikoko 64 mendiaren muga

Iparraldean: onura publikoko 1 mendia eta Amurrioko mendi pribatuak.

Ekialdean: Bergantza erreka.

Hegoaldea: mendi pribatuak.

Mendebaldean: idem.

“Orzales” izeneko onura Publikoko 67 mendiaren mugak (katalogoaren arabera)

Iparraldea: Saratxoko bidea.

Ekialdean: Lezamako mendi pribatuak.

Hegoaldean: Saratxoko mendia.

Mendebaldean: idem.